

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Negozio-ereduak funtzionatzea ahalbidetzen duten hornitzaile- eta bazkide-sareak osatzen dituzte. Gure egitasmoak zenbait hornitzaile izango ditu, hala nola Gasteizko Udala, gardelegiko pertsonalarekin, Alboka Soft Tecnologías de la Información S.L., Elkar denda, Fundicion eta Etorkizun supermerkatua.

Gure bazkide garrantzitsuena Gasteizko Udala da, hura uzten digulako gizarte-etxeetan gure zakarrontziak instalatzen, zakarrontziak eskaintzen dizkigu eta garraioan deskontuak egitea ahalbidetzen digu. Gure ideia udalarekin partekatu genuen eta gurekin kolaboratzea erabaki zuen. Hark proposatu zigun gure zakarrontziak Gasteizko gizarte-etxeetan ipintzea eta ideia ikaragarria iruditu zitzaigun, auzo bakoitzean gutxienez gizarte-etxe bat dagoelako, horrela biztanleriak eskuragarri izango ditu gure zakarrontziak eta birziklatzeko aukera. Gainera, pizgarri bat edukiko dute(deskontua garraioan). Guk proposatu genion gure egitasmoak sari bat eduki behar zuela gizartea erakartzeko, horregatik garraio publikoan deskontuak ematea birziklatzen duten heinean aukera ona iruditu zitzaigun. Gainera, zakarrontzien lurpeko tutuak eraikiko dituzte.

Esan dugun moduan, gure zakarrontziak lurpeko hodi batzuk dauzkate zaborra gardelegira zuzenean eramateko. Horretarako, Gasteizko gardelegiarekin hitz egin genuen, haien iritzia jakiteko gure egitasmoari buruz. Haien erantzuna ona izan zen, gure proposamena onartu zutelako. Haien laguntzen digutenez gardelegian lekua usten gure zaborrari, guk laguntzen diegu haien lana murrizten, zaborra zuzenean tutuetatik joaten delako.

Alboka Soft Tecnologías de la Información S.L., Postas kalean dagoen informatika denda da. Haiekin harremanetan jarri ginen, gure zakarrontzian jarriko ditugun plakak digitalak eta txartelak kudeatzeko eta egiteko (plaka hauek zaborraren pisua neurtuko dute eta txartelak irabazi ditugun puntuak gordetzeko birziklatu dugunaren arabera). Horren truke, haien logoa gure zakarrontzietan agertuko da, haien enpresa bultzatzeko.

Elkar denda, Fundicion eta Etorkizun supermerkatuen laguntzarekin deskontuak eskainiko dizkiogu gure bezeroei. Elkar dendak deskontuak egingo ditu eskolako materialean ikastolara bueltatzeko garaian. Fundicion,

txartel bat emango du urte oso baterako arropan gastatzeko eta Etorkizun supermerkatuarekin berdin egingo dugu urte baterako txartel bat eskeiniko digu janarian agortzeko.